

**HERRITARREK 2016ko AURREKONTUAN TXERTATZEKO  
PROPOSAMENEN BALORAZIOAK**



Esku artean duzuen dokumentu honetan Hernaniko herritarrek egindako proposamenen balorazioak jasotzen dira. 2015eko ekaina eta iraila bitartean Udal teknikari, zinegotzi eta langileek egindako balorazioak aurkituko dituzue.

**136 proposamen azaltzen dira guztira, hauetatik 50ek jarraituko dute aurrera prozesuan.** Kanpo geratu diren proposamenen arrazoiak hainbat izan dira: Udalak aurrekontu arruntetik bideratuko dituenak; Aldundiaren edo Eusko Jaurlaritzaren eskumena direnak; dagoeneko egin diren proposamenak, etab. 50 proposamen hauei lehengo urtean atera ez ziren proposamenak gehituko zaizkie.

Proposamenak egin diren **jatorrizko hizkuntzan agertzen dira** zuzenean, ez da itzulpenik egin. Norbaitek proposamenaren jatorrizko hizkuntza ulertzen ez badu, **edozein proposamenen itzulpena(k)** eska dezake, gurekin harremanetan jarriaz ([erabakihernanidecide@gmail.com](mailto:erabakihernanidecide@gmail.com)). Balorazio teknikoen itzulpenak berriz, datorren astetik aurrera egongo dira ikusgai.

Hurrengo urratsa prozesuan jarraituko duten proposamenak lehenestea litzake, beti ere bi irizpide nagusiren arabera: **Proposamen honek gure eguneroko bizitza errazteko balio du? Proposamenaren kostua eta ekarriko duen onura orekatuak dira?** Proposamenen aukeraketa hori 3 saio irekietan egingo da.

*Este documento recoge las **valoraciones técnicas las propuestas realizadas por las y los hernaniarras para el Presupuesto Municipal de 2016**. Las valoraciones han sido realizadas entre los meses de junio y septiembre de 2015.*

*Han sido **136 las propuestas realizadas por la ciudadanía, de las cuales 50 seguirán en este proceso**. Los motivos han sido varios: algunas propuestas se realizarán desde el presupuesto corriente; otras propuestas son competencia de la Diputación o Eusko Jaurlaritza; hay algunas propuestas que ya se han realizado, etc.*

*Las propuestas se presentan en el idioma en el que han sido recibidas, sin ninguna traducción. Toda aquella persona que no entienda el idioma original de la propuesta, podrá **pedir la traducción de toda(s) aquella(s) propuesta(s)** que quiera, poniéndose en contacto con esta dirección de correo: [erabakihernanidecide@gmail.com](mailto:erabakihernanidecide@gmail.com). La traducción de las valoraciones técnicas se habilitará a partir de la semana que viene.*

*La próxima fase de este proceso consistirá en la priorización de las propuestas, siguiendo dos criterios: **¿Esta propuesta sirve para facilitar el día a día de las personas? ¿Es equilibrada la relación de coste y beneficio de esta propuesta?** Para responder a estas preguntas se realizarán 3 reuniones abiertas.*

**ETXEBIZITZA**
**Prozesuan AURRERA**
**Prozesutik KANPO**

ETXEBIZITZA	ZKIA	PROPOSAMENA	BALORAZIO TEKNIKOA	AURREIKUSPEN EKONOMIKOA
	<b>1</b>	<b>Fomentar el alquiler social.</b> Entendemos la vivienda como un derecho no como un negocio. Por lo que es prioritario satisfacer las necesidades básicas.	Iazko aurrekontuen prozesuan atea zen eta 2015ean ordenantza egin da eta martxan jarriko da.	(Egin da)
	<b>2</b>	<b>Viviendas compartidas para jóvenes</b>	Aurten Gazte Saila martxan jarri da eta bertatik gazteei zuzendutako informazioa, aholkularitza eta laguntzak bideratzen dira. Bertatik gai hau kudeatuko da.	(Egin da)
	<b>3</b>	<b>Microcréditos para personas en riesgo de perder vivienda.</b> El paro, fermedad o cualquier impedimento de obtener recursos no puede significar quedarse sin vivienda.	Iazko aurrekontuen prozesuan atea zen eta 2015ean ordenantza egin da eta martxan jarriko da.	(Egin da)
	<b>4</b>	<b>Asesoramiento jurídico para personas en riesgo de perder vivienda,</b> no poder defenderse en los tribunales de cláusulas abusivas, etc	Lehendik ere egin izan da eta kasu hauek Udalera iristen direnean bideratu izan ditugu eta aurrerantzean ere bideratuko ditugu.	(Kudeaketarekin lotuta)
	<b>5</b>	<b>Adquisición de viviendas en el casco histórico para dedicarla al alquiler a bajo coste para jóvenes después de su rehabilitación.</b> Revitalizar el casco histórico posibilitando la llegada de niños. Mantener las viviendas en mejor estado evitando su ruina.	Udalak diru partida bat jaso dezake etxeak erosteko. Ondoren gazteekin auzolanean edota modu koordinatuan berritze lanak egin eta txukundu	100.000€
	<b>6</b>	<b>Adquisición de viviendas en el casco histórico (preferentemente en edificios enteros) para dedicarlas a alquiler baratos exclusivamente para jóvenes.</b> Las viviendas del casco se mantienen adecuadas, evitando el deterioro de sus edificios.(ejemplos en Tolosa, Plaza Euskalerría).	Udalak diru partida bat jaso dezake etxeak erosteko. Ondoren gazteekin auzolanean edota modu koordinatuan berritze lanak egin eta txukundu	100.000€
	<b>7</b>	<b>Gazteentzako etxebizitzak.</b> Gazteentzako alokairu merkeak jartzea. Nola? Ez dakit baina hutsak dauden pisuak erabiliz, lokalak etxe bihurtuz eta gazteei alokairu merkean eskainiz...	Udalak diru partida bat jaso dezake etxeak erosteko. Ondoren gazteekin auzolanean edota modu koordinatuan berritze lanak egin eta txukundu	100.000€

**Prozesuan AURRERA**

**Prozesutik KANPO**

HEZKUNTZA	ZKIA	PROPOSAMENA	BALORAZIO TEKNIKOA	AURREIKUSPEN EKONOMIKOA
	8	<p><b>Buscar una solución a la entrada de la Ikastola y el Instituto en Santa Barbara.</b> La entrada de la Ikastola no cumple normativas, de autobuses ni de minusválidos. A horas punta se produce embotellamiento de automóviles, que cualquier día va a suponer un accidente con consecuencias imprevisibles. Además, la salida a la carretera se debería acondicionar con una semirotonda.</p>	<p>Santa Barbarako bigarren hezkuntzako ekipamendura ikasleen gehiengoa oinez edo eta bizikletaz bertaratzen da. Kotxez gerturatzen direnak gutxiengo bat badira ere, ez dago kotxea gelditu eta jaisteko berezko lekurik ez eta horiek buelta emateko espazio egokirik. Datozen hilabetetan Hezkuntza Sailak Institutua handitzeko eraikin berri bat eraikiko du. Proiektuaren baitan sarrera berri bat aurreikusten da institutara hainbat zerbitzuen irisgarritasuna hobetzeko.</p>	<p><i>(Prozesutik kanpo)</i></p>
	9	<p><b>Hezkidetzaren egitasmo bat hezkuntza ziklo guztietan.</b> Hezkuntza da gure nortasunaren eraikuntzan eragiten duen oso elementu garrantzitsua, eta hori kontuan hartuta, beste eduki batzuekin diseinatutako hezkuntza sistema baten beharra dago. Oso positiboa iruditzen zait Harremonak egitasmoa.</p>	<p>Hezkidetzaren lantzeko egitasmo bat martxan du Hernaniko Udalak orain urte dextente, Harremonak izenekoa, pertsonen arteko tratua onak sustatzeko helburuarekin ari dena.</p> <p>Esku-hartze eremua nerabe eta gaztetxoengana zuzentzen da bereziki, DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleak izanik, nagusiki, egitasmoaren jasotzaileak.</p> <p><b>lehentasunak:</b></p> <p>1... <b>Herriko 6. mailako</b> gaztetxo guztiengana iristea.</p> <p>2. Irakasleekin eta, batik bat, gurasoekin esku hartzeak egitea. Esku-hartze hori, <b>lehentasunez, Haur Hezkuntzako</b> haurren <b>irakasleekin</b> eta <b>gurasoekin</b> egin beharko litzatekeela uste dugu.</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Herriko 6. maila guztietako gaztetxo guztiekin esku-hartzea ziurtatzea (2015-16 ikasturtean): 3.500 euro.</li> <li>2. Haur hezkuntzako irakasle eta gurasoekin egin beharreko eskuhartzea:             <ol style="list-style-type: none"> <li>a) Azterketa eta planifikazio lana egitea (2015eko azarotik 2016ko urtarrilera): 3.500 euro.</li> <li>b) Esku-hartzea bera egitea (2016-17 ikasturtean), eta horretarako behar diren materialak prestatzea: 8.000 euro</li> </ol> </li> </ol> <p>Aurreikuspena guztira 2016rako: 11.000 euro</p>

## KIROLA

Prozesuan AURRERA

Prozesutik KANPO

KIROLA	ZKIA	PROPOSAMENA	BALORAZIO TEKNIKOA	AURREIKUSPEN EKONOMIKOA
	10	<b>Realizar mejoras en el campo de Zubipe, vestuarios, oficinas, iluminación del campo, valla del campo</b>	<p>Azken urtean egin diren esku hartzeak kontuan hartuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Belar berria orain jartzen ari da</li> <li>- Zelaien argiteria aurten aldatu da</li> <li>- Jantzi-gelan jartzeko kiroldegian zeuden bankuak eta pertxak emango dira</li> <li>- Zelaiaren inguruan dagoen hesia arriskutsua da, aldatu beharko litzateke</li> </ul>	<p><i>Hesia kendu eta berria jartzea: 14.000€-16.000€ artean.</i>  <i>(Aurrekontu zehatzaren zai)</i>  <i>Argiteria, jantzi-gela eta zelaia kanpo</i></p>
	11	<b>Polikiroldegiko aldagelak eta instalazioak konpondu.</b> Argiak, aldagelak, eta edifizioa orokorrean zaharra dago.	2015. urtean zehar egin da.	<i>(Egina)</i>
	12	<b>Landare tokiko errugbi guneko berrikuntzak:</b> Eserlekuen hedapena, gaur egun 250 eskerleku estalitak daude gradetan, eta 120 gehiagora zabaltzea; Komun gehiagoren beharra dago; Bidetxo bat egin lehengo zelaitik bigarrenera, gaur egun lokatza delako; Desfibriladore bat; Zelaia txukun/garbi mantentzeko, makinariaren beharra dago.	Desfibriladoreak erosi dira eta beraz, Landaren badago dagoeneko. Komunena ez dela beharrezkoa baloratu da badaudelako sarreran. 2.zelairako bidexka eta harmailak egitea aurreikusten da, baita makinaria osatzeko behar dena hitz egitea.	10.000€
	13	<b>Atletismoko pista berritzea.</b> Pista konkorez beteta dago, belardia, zuloz beteta eta erorketak eman daitezke dagozkien lesioekin.	Pista gaizki dago, eta aldatzea ondo egongo litzateke.	110.000€
	14	<b>Padeleko pista</b>	Kanpoan jartzeko instalazio bat da, kontrolpean egon behar dena. Kokalekua aukeratzeko ez da erraza	50.000€
	15	<b>Frontoi publiko estali bat, jada dugun frontoiren bat estaltzea.</b>	2015. urteko aurrekontu partehartzaileen prozesuaren baitan herriko hainbat gune publiko estaltzeko proposamena jaso zen. Horren ondorioz, bi espazio publiko desberdin estaltzea erabaki zen: batetik, Gay Mur ikastolako jolas zelaia eta bestetik, Atletismo pistaren ondoko parkea. Lehenengo estalkiaren proiektua idazteko lehiaketa martxan dago eta bigarrena ideia lehiaketa bidez egingo da. Hortaz, 2016. urterako herrian bi gunek estaldura berria izango dute. Pelota jokurako frontoi estali baten beharra, kirol zerbitzuak herriko kirol baliabideen azterketa baten baitan ondorioztatu beharko litzateke. Hala balitz, aztertu beharko litzateke, halaber, aukerarik egokiena egun dagoen frontoi bat estaltzea edo eta egitura berri bat egitea den.	<i>(Kanpo)</i>
	16	<b>Adecuación del local municipal de Perkaiztegi 6, cedido al CD Hernani.</b> Molestias continuas a la comunidad de vecinos, riesgos de seguridad, cumplimiento con las propias norma municipales, legalización de la situación del local.	Bere garaian kirol sailak adostu egin zuen klubarekin lokalaren erabilpena, ordutegia e.a. Gaia landu behar da, baina aurrekontu bat baino, gestioarekin du lotura handiagoa.	<i>(kudeaketarekin lotuta)</i>
	17	<b>Espazio publikoan, parke edo plazaren batean fitnessa eta giharrak lantzeko tresnak jartzea</b>	Bere garaian kirol sailak planteatu zuen horrelakoak Villa Marian jartzea, baina hirigintzatik ezetz esan zuten. Jartzeko toki egokia atletismoko pistan inguruan da. Materiala: trepa, lunbarrak lantzeko, oreka lantzeko, besoak lantzeko, paralelak	4.800€

## Prozesuan AURRERA


## Prozesutik KANPO

AISIA	ZKIA	PROPOSAMENA	BALORAZIO TEKNIKOA	AURREIKUSPEN EKONOMIKOA
	18	<b>Haur gune bat 0-5 urte bitarteko haurrentzat.</b> Haurren arteko harremanak sendotzeko, gurasoen arteko harreman sarea sortzeko, kezkak konpartitu eta soluzioak denon artean bilatzeko (formazioa, hitzaldiak, tailerrak...).	Gure zalantzak izan ditugu gai hau planteatu izan denean, aurrekontu partehartzaileetan planteatu aurretik ere mahai gainean izan baikenuen eskaera hau. Baloratutako aukera honakoa da: Gela bat prestatzea Urumea Elkano eskolan. Irailetik aurrera hutsik geratuko da eskola hori eta, oraingoan, zutik mantenduko denez, espazioaren bat erabiltzeko aukera izango dela uste dugu. Eraikina erdigunean dago eta, alde horretatik, kokapen egokia eduki dezake. Baina, baldintza minimoak ziurtatzeko (kalefakzioa,..) berrikuntza lan batzuk egin beharra dauka udalak, gastu handi samarra eragin dezaketenak.	3.000€
	19	<b>Haur gune bat izatea Hernanik Ume txikiekin egon, jolastu...egin ahal izateko gune bat.</b> Etxeaz eta parke irekiez gain ez dago espaziorik Hernanin eguraldi txarra egiten duenean eta ikastaroak antolatu ahal izateko.	Gure zalantzak izan ditugu gai hau planteatu izan denean, aurrekontu partehartzaileetan planteatu aurretik ere mahai gainean izan baikenuen eskaera hau. Baloratutako aukera honakoa da: Gela bat prestatzea Urumea Elkano eskolan. Irailetik aurrera hutsik geratuko da eskola hori eta, oraingoan, zutik mantenduko denez, espazioaren bat erabiltzeko aukera izango dela uste dugu. Eraikina erdigunean dago eta, alde horretatik, kokapen egokia eduki dezake. Baina, baldintza minimoak ziurtatzeko (kalefakzioa,..) berrikuntza lan batzuk egin beharra dauka udalak, gastu handi samarra eragin dezaketenak.	3.000€
	20	<b>0 - 5 urte bitarteko haurrentzat espazio itxi bat.</b>	Gure zalantzak izan ditugu gai hau planteatu izan denean, aurrekontu partehartzaileetan planteatu aurretik ere mahai gainean izan baikenuen eskaera hau. Baloratutako aukera honakoa da: Gela bat prestatzea Urumea Elkano eskolan. Irailetik aurrera hutsik geratuko da eskola hori eta, oraingoan, zutik mantenduko denez, espazioaren bat erabiltzeko aukera izango dela uste dugu. Eraikina erdigunean dago eta, alde horretatik, kokapen egokia eduki dezake. Baina, baldintza minimoak ziurtatzeko (kalefakzioa,..) berrikuntza lan batzuk egin beharra dauka udalak, gastu handi samarra eragin dezaketenak.	3.000€
	21	<b>0-3 urterako Parke egokitua.</b> Haur parke guztiak adin tarte berdinentzat eginak daude. Katuka dabiltzan haurrak, arrastaka, zutik jartzen hasi berriak... beste modu batera antolaturiko espazioak behar dituzte, elementu naturalekin sortuak, plastiko gutxiagorekin...	Parkeetan txertaturiko eremu naturalago bat sortzeko, Herrilantakoekin elkarlanean, 10.000 eurotan, hondar edo hartxintzarrezko lurrarekin, egingarria izango litzateke. Eremu hauek, Kale garbitzaileek egunero garbitu beharko litzateke.	20.000€
	22	<b>Haurrentzako ekintza kultural gehiago batez ere HHko etapan dauden umeentzako (2/6 urte)</b>	Arte eszenikoak programatzerakoan adin tarte hau aurrerantzean kontutan izango da. Liburutegiak programa bat abiatu zuen lehengo urtean, Bularretik Mintzora izenekoak. Hauek dira abian jarriko diren eta jarri diren ekimenak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakasleen Formazioa jarraipena: bi orduko 3 saio</li> <li>• Motxilak eta mailetak: jarraipena</li> <li>• Irakurketa klubak: 6 saio (3-6 urte bitartekoentzat + gurasoak)</li> </ul> Programazioa handitzeko aukera egongo da	8.000€

# ESPAZIO PUBLIKOA, PARKEAK ETA PLAZAK

Prozesuan AURRERA

Prozesutik KANPO

ESPAZIO PUBLIKOA, PARKEAK eta PLAZAK	ZKIA	PROPOSAMENA	BALORAZIO TEKNIKOA	AURREIKUSPEN EKONOMIKOA
	23	<b>Atsegindegiko estalpea hobetzea:</b> alboko paretaren bat finkoa izatea eguraldi txarrarekin aprobetxatzeko eta eserlekuak bertan jartzea.	Eguraldirik desatseginena Aristizabal-anbulategi aldetik datorrela ikusita, sapaiaaren albo horretan jardineria lineal bat jartzea aztertu da. Bertan landare igokariak jartzeaz gain sare egitura bat beharko litzateke, landareak hazten joan ahala, horman gora igotzeko. Horrela sortuko litzatekeen itxitura, haizeari permeablea litzateke, euri ura plazara sartzea ekidingo luke, haize-korrontea plazan lehundu, udaran freskura transmituko, estetikoki txukuna geratu litzateke eta behean jardineran eta itxituraren alde banatan, kanpoan zein barruan, eserlekuak egin ahalko lirateke.	20.000€
	24	<b>Lurrean margotutako jolasak jartzea Atsegindegian.</b> Jolaserako gune erakargarria sortzen du; Estetikoki plaza hobetzen du; Jolas aktiboak sustatzen ditu (patinajea, bizikletak, lasterketak, saltoak...); Kreatibitatea, imajinazioa pizten ditu, harreman sozialak sortzen; Plazan ospatzen diren beste ekitaldiak ez ditu oztopatzen; Merkea, koste txikia	Zikuñagako Hautxokoak zireneko soportalean, auzo elkarteak berak egin du horrelako zerbait, xumea izangatik interesgarria. Gutxienez hangoak eta beste batzuk ere margo daitezke. Auzolanean planteatzeko aukera egon daiteke.	1.500€
	25	<b>Tilosetako lurra berriztatzea.</b> Historia duen plaza da eta gaur egun ere bizitza handia duena.	Ezkiaga pasealekuko zoladura leku askotan hondatuta dago, eta beste askotan irregularra da, zuloak estaltzeko egindako partxeoak gaizki eginak baitaude. Zoladura konpontzeko proposamena: lehendabizi lurra berdintzea, aglomeratu asfaltikozko 3 cm-ko geruza bat jarrita eta, horren gainetik, koloreko edo koloreetako akabera bat ematea Slurry-rekin edo, bestela, erretsina eta harri birrindu bidez egindako akabera ematea.	1. aukera: 3.280,00m2 aglomeratu asfaltiko + Slurry= 157.164,48 € 2. aukera: 3.280,00m2 aglomeratu asfaltiko + erretsina eta harri birrindua= 229.198,20€
	26	<b>Aristizabal eta Karobieta artean dagoen plaza hobetzea.</b> Bertan zegoen haur parkea kendu zuten eta ez dago ezer, teniseko mahaiak jarri daitezke adibidez gazteentzat.	<i>(Balorazio zehatzaren zain)</i>	
	27	<b>Mañe y flaquer auzoan dagoen bide heziketako pistaren ondoan zegoen parkearen lekua txukun jartzea, eserleku, belardi edo beste parke batekin</b>	Gaur egungo lurra, hormigoia da miranda harriarekin osatua dago eta juntetan eta abar belarrak etabar ikus daitezke. Lurraren egoera ez da oso ona eta berritzea egokia litzake. Eskatzaileak belardi edo beste parke batekin txukuntzea eskatzen du.	33.541€
	28	<b>Txakurrentzako parkea.</b> Txakurrak lotutak joan behar dute uneoro baina badute eskubidea korrika aske ibiltzeko ibiltariei oztopo egin gabe.	Iaz egin zen txakurren ordenantzan jasota dago txakurrak libre ibiltzeko gunea Karobieta parkean. Martxan jarri eta egokitu behar da.	<i>(egingo da)</i>
	29	<b>Nire proposamena, Hernanik dituen gune</b>	Zalantzarik gabe parkeek, jardinek eta pasealekuek herria atseginagoa egingo	<i>(Kudeaketarekin lotuta)</i>



		<b>berdeak herritarron erabilerarako egokitzea da.</b> Hala nola, harrobian parke eta jardinak sortu, Florida auzoaren atzekaldeko mendixkan pasealekuak egin, parke botanikoa eta pistina irekien artean dagoen eremua egokitu eta ireki, harrobia eta Sorgintxulo auzoko mendixka, Orona aldera, egokitu eta ireki, Goiz Eguzki eta bere ondoko berdegunea pana parkearekin konektatu pasealuko bat eraikiz.	lukete, erakargarriagoa... herritarrentzat, eta bide batez, bisitarientzat ere. Lanketa handiagoa behar duela eta, azterketa sakonago bat behar du. Beraz, kontuan hartzen da eta Udalean gaia lantzen joango da, baina prozesutik kanpo.	
	<b>30</b>	<b>Parque infantil cubierto</b>	Haurren jolas parkeetan estaldura jartzeak haiek euria egiten duenean erabiltzeko aukera ematen badu ere espazio horien argiztapen eta aireztapen naturala ere oztopatzen du. Hortaz, nire proposamena martxan dagoen Atletismo pistaren ondoko parkeko estalduraren prozesua burutu eta hura martxan egonda onurak eta galerak baloratu ondoren parke berriak estaltzeko irizpideak jartzea da.	<i>(Kanpo)</i>
	<b>31</b>	<b>Arreglar pavimento de Plaza Berri</b>	2015erako Aurrekontu parte hartzaileen prozesuan ateratako proposamena. Egina.	<i>(Egina)</i>

## PARTE HARTZEA

Prozesuan **AURRERA**

Prozesutik **KANPO**

ZKIA	PARTE HARTZEA	PROPOSAMENA	BALORAZIO TEKNIKOA	AURREIKUSPEN EKONOMIKOA
<b>32</b>		<b>Haurren prozesu partehartzailea.</b> Diseinatzen diren egitasmoetan hartzen diren erabakietan eragiteko aukera emateko.	Udalak kudeatu beharrekoa da, eta aurrekontu arruntetik bideratuko da.	<i>(Kudeaketarekin lotuta)</i>



Prozesuan AURRERA

Prozesutik KANPO


KULTURA	ZKIA	PROPOSAMENA	BALORAZIO TEKNIKOA	AURREIKUSPEN EKONOMIKOA
	33	<b>Un auditorio en buenas condiciones.</b> No hay espacio en buenas condiciones para actuaciones de teatro, música, baile, etc. Creemos que es una necesidad compartida.	Biteri Kultur Etxeko aretoa motz geratu da arlo askotan, alde batetik, espazio eszenikoa eta haren disposizioa oso mugatua da hainbat ikuskizun eta konpainia hartzeko. Eta bestetik publikoarentzat ere oso mugatua da, aforo eta erosotasunaren aldetik. 2.000-3.000 m2-ko kultur ekipamendu baten proiektua egiteko 122.000 € - 172.000 € behar dira. Baina prozesu honen aurrekontuak ez du auditorio bat egokitzeko nahikoa baliabide ekonomiko, beraz, prozesutik kanpo geratuko da.	(500.000€ak gainditzen ditu)
	34	<b>Abe Maria parkeko etxea berritu erabilera kulturalak emateko:</b> edozein erabilera izanda ere pena mereziko lukela uste dut, egoera penagarrian dago.	Eraikina modu intentsiboago batean erabili nahi izanez gero, estalkia ez beste guztia eraberritzea beharko luke. Eraberritze proiektuak egituraren azterketa bat izan beharko luke barne. Edozein kasutan lehenik eta behin definitu beharko lirateke eraikinaren erabilerak eta haiekin egokitzapen proiektua egin.	(Kulturako prozesuan landuko da)
	35	<b>Udalak 12 karpa tolestagarri erostea (neurria: 3m x 2m).</b> Herrian zehar hainbat ekintza antolatu ohi dira eta momentu honetan ez dago horrelako karparik guztion artean konpartitu ahal izateko.	Erabilgarria dela uste dugu, hainbat herri eta udal ekimenetan erabiliko litzateke. Orain, Berriak Elkarteak dauka horrelako azpiegitura bat eta herriko elkarteek haiei egiten dizkiete eskaera. Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza baten bidez erosiko dira, eta beraz, prozesutik kanpo geratuko da erosi egingo direlako.	(egingo da)
	36	<b>Biteriko areto nagusiko ekipoak errebisatu eta behar izanez gero berritu: soinu-ekipoa, nahasketa-mahaia, proiektzio-ekipoa, argiztapena, mikrofonoak...</b>	Baliabideak nola jarri herritarren eskura aztertu behar da, batez ere, proposamenaren bigarren zatia irabazteko asmoz. Biteriko ekipamenduak hobetzen ari gara, eta hobekuntzak egiten jarraitzeko aurrekontu gehiago beharko litzake.	25.000€
	37	<b>Milagrosa Kapera txukuntzea. Hezetasunak eta goterak konpondu eta eraikuntzaren fatxada txukundu.</b> Eraikuntza hori asko erabiltzen dugu herritarrok. Pixka bat konpontzea uste dut beharrezkoa dela.	Udalak kudeatu beharrezkoa da, eta aurrekontu arruntetik bideratuko da.	(Kudeaketarekin lotuta)
	38	<b>Milagrosa Kapera konpondu barrutik:</b> zutabeak, soinu tresnak hezetasunagatik hondatu egiten dira. Goiko zapaia erortzeko arriskua egon daiteke gaur egungo egoeragatik	Udalak kudeatu beharrezkoa da, eta aurrekontu arruntetik bideratuko da.	(Kudeaketarekin lotuta)
	39	<b>Urte zaharrean Txaranga jartzea, aspaldiko ohiturak jarraituz!</b> Jende asko biltzen zen bertan eta azken urte hauetan urte zahar gauak zeukan esentzia galdu egin duela iruditzen zait. Politza litzateke ohitura hori berrreskuratzea	Pentsatu liteke urte zaharretan zerbait antolatzea. Eztabaida prozesua ireki nahi dugunez, bertan aztertzeke gaia dela uste dugu.	(kultur prozesuan landuko da)
	40	<b>Udalak musika ekipo bat erostea, bai udal ekimenetarako, baita herriko eragile sozial ezberdinek antolatzen dituzten ekimenetarako</b>	Somaten da eragile ezberdinetan soinu ekipo horren beharra, ekitaldi txikietarako, oinarriko ekipoa. Ekipoak funtzionamendu autonomoa izan beharko luke. Egunean bertan udal langilerik beharko ez duena. Altaboz, mikro bat eta musika jartzeko sarrera bat izan beharko luke.	1.000€
	41	<b>Kafe antzoki moduko bat sortzea Hernanin.</b> Egun herrian ez dago, kontzertuak, emanaldiak, erakusketak...egiteko leku aproposik. kultur etxea txikia geratzen da, eta ez du ahalbidetzen formatu ezberdinetako emanaldiak egitea.	Hernaniko kultur egoeraren eta Hernanin behar duen kultur ereduaren inguruan hausnarketa prozesua bat egiteko asmoa dago, eta bertan, landu beharko litzateke gai hau. Momentuz prozesutik kanpo geratzen da, baina Kultur prozesuan landuko da.	(Kultur prozesuan landuko da)

	42	<b>"Ipuin kontaketa" con mas frecuencia y diferentes días del mes</b>	Saio gehiago egiteko aukera izango bagenu, honakoa da proposamena: 12 saio urtean (orain egiten dugunaren doblea) eta pertsona bat saioa prestatzeko eta zaintzeko	6.900€
--	----	---	--	--------


## ONDAREA


Prozesuan AURRERA



Prozesutik KANPO


ONDAREA	ZKIA	PROPOSAMENA	BALORAZIO TEKNIKOA	AURREIKUSPEN EKONOMIKOA
	43	<b>Recuperación, arreglo y recolocación del único letrero de "Hernani" que queda en Hernani en Lizeaga 9 (Paisak etxea) de los que la Diputación colocó, en cerámica, en los pueblos de Gipuzkoa a comienzos del siglo XX</b>	Udalak kudeatu beharrekoa da, eta aurrekontu arruntetik bideratuko da.	(Kudeaketarekin lotuta)
	44	<b>Limpiado y pintado con "antigrafitis" las fachadas de piedra del casco histórico</b>	Printzipioz, FCCren kontratuaren baitan esan, presio gutxiko are finezko fatxada garbiketen gailua udalaren zerbitzura duela FCCk eta beraz, antigrafiti tratamenduak, lan hau erraztuko lukeela. Tratamendu hau emateko lehenik komeni litzake interes berezia duten elementuak zehaztea eta probatzea, antigrafitiek duten kostua ikusita eta aldiro tratamendua berri beharrak eraginda.	2.300€

## LURRALDE ANTOLAKETA, ERREPIDEAK, APARKALEKUAK ETA TRAFIKOA

LURRALDE ANTOLAKETA, ERREPIDEAK, APARKALEKUAK eta TRAFIKOA	ZKIA	PROPOSAMENA	BALORAZIO TEKNIKOA	AURREIKUSPEN EKONOMIKOA
	45	<b>Boulevardización de la carretera del circuito (GI-2132 desde Teilerigain a Sorgintxulo) y ASFALTADO anti-ruido de toda la longitud de la vía.</b> Como se está haciendo en Añorga o ya se hizo en Ayete, creación de bidegorris, aumento del número de semáforos y pasos cebra, reducción del ancho de la calzada, creación de isletas centrales, etc.	Aldundiaren eskuduntza da, ez Udalarena. Halere, Aldundiari jakinaraziko zaio.	(Ez da Udalaren eskumena)
	46	<b>Boulevardizar la carretera GI-2132 desde la rotonda de Mandazubi hasta la de Galarreta.</b> La GI-2132 soporta un tráfico de 20.000 vehículos diarios. Una boulevardización propiciaría una circulación más lenta e invitaría a algunos conductores a tomar un circuito alternativo.	Aldundiaren eskuduntza da, ez Udalarena. Halere, Aldundiari jakinaraziko zaio.	(Ez da Udalaren eskumena)
	47	<b>Instalación de un semáforo en el cruce Tellerigain kalea con la GI2132.</b> Sería de gran utilidad para los vecinos y vecinas de Tellerigain y Santa Barbara 20/30,	Aldundiaren eskuduntza da, ez Udalarena. Halere, Aldundiari jakinaraziko zaio.	(Ez da Udalaren eskumena)

		Estudiantes y trabajadores de los centros escolares - institutos de la zona.		
	48	<b>Instalación de nuevas señalizaciones en la A15 antes de la salida de Mandazubi dirección Urnieta-Donostia.</b> Informar correctamente principalmente a los camiones que existe otra salida a Hernani (Hernani Iparra-Norte) y sus zonas industriales principales evitando que salgan en Mandazubi camiones que acaban girando, peligrosamente, en Teilerigain o, incluso, entrando en el casco de Hernani totalmente perdidos.	Aldundiaren eskuduntza da, ez Udalarena. Halere, Aldundiari jakinaraziko zaio.	(Ez da Udalaren eskumena)
	49	<b>A15 eta A5 errepideak insonorizatzeko panelak jartzea, batez ere A15 errepideen Hernani bailara guztian zehar bi aldeetan eta A5 ean antziola auzoaren aldera. Hauen inguruetan dauden berdeguneetan zuhaitzak jartzea ere gustatuko litzaidake</b>	Aldundiaren eskuduntza da, ez Udalarena. Halere, Aldundiari jakinaraziko zaio.	(Ez da Udalaren eskumena)
	50	<b>Modificación de direcciones en el sistema de circulación de Hernani:</b> 1).Ejecutar una solución que facilite el acceso a la rotonda de Antziola y de este modo a una de las SALIDAS principales de Hernani. Se plantean dos posibles soluciones globales y distintas alternativas de las mismas: a)Que la calle Antziola, en su tramo desde la rotonda Antziola, hasta su intersección con la calle Oriamendi sea de doble sentido. b)Apertura de un nuevo vial perpendicular a la calle Antziola. 2).Que la calle Oriamendi siga manteniendo su carácter de vial de coexistencia y tránsito interno vecinal.	Hernaniko Mugikortasun planak eta AASS testuan jasota daude hainbat neurri egungo errepide eta norabide sistema moldatu eta hobetzen lagunduko dutenak. Horretarako kudeaketa egin behar du Udalak egin beharreko aldaketa hauek ez baitaude Udalaren esku baizik eta promozio urbanistikoekin lotuta.	(Kudeaketarekin lotuta)
	51	<b>Herriko errepideen norabideak gainbegiratzea.</b> Badira herrian zenbait bidegurutze kotxez gainezka: Ezkerro fruta denda aurrean eta Atsegindegi.	Hernaniko Mugikortasun planak eta AASS testuan jasota daude hainbat neurri egungo errepide eta norabide sistema moldatu eta hobetzen lagunduko dutenak. Ezkerroko bidegurutzea, herriko bidegurutzerik konplexuenetakoa da, hiru kale bertan elkartzen direlako. Eta honek garbi eragiten dio trafikoari, moteldu egiten du noski. Anbulategi aurretik pasatzen den bidea irteera nagusienetakoa da. Garraio publikoa eta gainontzekoen irteera bakarra Horretarako kudeaketa egin behar du Udalak egin beharreko aldaketa hauek ez baitaude Udalaren esku baizik eta promozio urbanistikoekin lotuta.	(Kudeaketarekin lotuta)
	52	<b>Etxeberri auzoko tunela hobetzea:</b> moduren batean handituko balitz, Hernaniko beste irteera oso interesgarria bihurtuko litzateke.	Bere garaian ADIFekin egin zen kontsulta eta ez dago aukerarik tunela hobetzeko, ADIFen arabera.	(Ezin da)
	53	<b>Trenbide azpiko pasabidea hobetu(handitu) oinezko eta autoentzako irtenbide hobetza lortuz</b>	Bere garaian ADIFekin egin zen kontsulta eta ez dago aukerarik tunela hobetzeko, ADIFen arabera.	(Ezin da)
	54	<b>Errepideetako marrak margotu:</b> batzuk margotu gabe daude eta ez da ondo ikusten. Zubiondo zubitik, tunel txikira, renferen parean dagoenera.	Udalak kudeatu beharrekoa da, eta aurrekontu arruntetik bideratuko da.	(Kudeaketarekin lotuta)
	55	<b>Florida auzoan aparkalekuen moldaketa:</b> politena parkearen parean baterian aparkatzen da eta nire ustez	Kontuan izanik kasu honetan, aparkaleku hauek erabiltzen direla hauxe da gure balorazioa.	(Aurrekontu zehatzaren zain)


		<p>egokiago da linean aparkatzea</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1- Bateria aparkatzeko erabiltzen den eremua pintatzea, aparkalekua margotuz eta hauek hartu behar duten angelua markatuz.</li> <li>2- Linean dauden aparkalekuen eremua ere margotu eta aparkalekuak ere margotu espaloien kontra aparka dezaten.</li> <li>3- Floridako zuzen honetako errepidea margotu, bi erreak ondo bereiziz.</li> <li>4- Ez dugu bateriatik lineara pasatzeko beharrik ikusten</li> </ol>	
	<p><b>56</b></p>	<p><b>Herrian aparkaleku gehiago sortzeko proposamena:</b> Txantxillako sarreran karril bat kendu eta baterian aparkalekuak egitea; Elkano kalean, polikiroldegiko aldapan dauden aparkalekuak, linean egon beharrean baterian aparkatzeko prestatzea; Atzieta kalean baterian dauden kotxeen arteko tartea txikitzea; Urbieta kalean, linean aparkatu beharrean baterian aparkatzea; Txirrita kaleko eskubiko karrila, autobus geltokia eta gero, linean ordez baterian aparkatzeko aukera, edo autobus gorriaren geltokia zinkoeneara eraman eta honela, kale guztian baterian aparkatzeko aukera egongo litzeteki.</p>	<p>Txantxillako sarreratik oinezkoen pasabideraino aparkalekuak baterian jar daitezke baina bidea estutzen denez ( garraio publikoa , zamalanen kamioiak eta zerbitzu publikoenak, suhiltzailak barne ) espaloiz zatia kentzea ezinbestekoa da, bestela ibilgailuen atze aldeak kanpoan geratuko lirateke. Elkano kaleko bateraia ez dugu egokia ikusten. Garraio publikoarentzat espazioa ezin da estutu. Atzieta kaleko aparkalekuak estutzea ez dugu egoki ikusten. Urbieta kaleko bateraia bideragarria da. Txirrita kaleko proposamenari dagokionez, autobus geltokia bertatik kenduz gero izango luke bidegarritasuna, bestela ez.</p>	<p>(Aurrekontu zehatzaren zain)</p>
	<p><b>57</b></p>	<p><b>Aumentar plazas de aparcamiento, mejorar la iluminación y aceras del barrio Sagastialde</b></p>	<p>Espaloiak: Zerbitzuetatik aurrean egin dira hainbat konponketa eta mantenu lan Sagastialde auzoko espaloietan. Aparkalekua: Sagastialden aparkalekuak handitzeko eskaera dela eta, Hernaniko Udala herri mailako azterketa bat egiten hasiko da aparkalekuen inguruan, eta Sagastialderen kasua bertan aztertuko da. Argiteria: Argiteria nagusia aztertu ondoren, badago auzo erdian gune bat argiteria indartzeko obra egin beharko litzakeena.</p>	<p>Argiteria: 6.000€</p>
	<p><b>58</b></p>	<p><b>Herriko hainbat leku peatonalizatzea:</b> Hala nola:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Izpizua-Elkano bidegurutzea, Urumea ikastola, kontuan izanik herriko haur askok erabiltzen dutela errepide hori eskolara joateko</li> <li>- Elkano-Nafar kaleko bidegurutzea, Txarter inguruan</li> <li>- Karmelo Labaka-Elkano-Antziola kaleko bidegurutzea</li> <li>- Latsunbe auzoa-Elkano bidegurutzea, bertako semaforoa kenduz</li> <li>- Aristizabal-Urbieta kaleko bidegurutzea</li> <li>- Latsunbe kalea-Urbieta kalea eta Marieluts kalea elkartzeko dituen bidegurutzean</li> <li>- Zinkoeneako oinezkoen gunea handitu eta ahal den bidegurutze gehienetan</li> </ul>	<p>Aztertu ditut banan bana proposatu diren guneak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Izpizua-Elkano bidegurutzea: errepide ezberdinetako trafikoa batu egiten da, trafikoa handitzen den heinean oinezkoentzako arriskua handitzen da. Hori dela eta, momentu honetan ez dut egokia ikusten oinezkoen lehentasuna emateko "gune 10" jartzea.</li> <li>- Elkano-Nafar kaleko bidegurutzea eta Aristizabal-Urbieta kaleko bidegurutzea: Inguru horretan dauden zerbitzuak ikusita (Kultur etxea, Osasun zentroa, Supermerkatuak, autobus geltokiak...) oinezko-gunea zabaltzea proposatzen dut.</li> <li>- Latsunbe kalea-Urbieta kalea eta Marieluts kalea elkartzeko dituen bidegurutzea: Gune honetan egokia ikusten dut oinezkoentzako gunea jartzea.</li> <li>- Zinkoenea: Betidanik autoentzako espazio izanda poliki poliki oinezkoentzako espazioa bihurtzen ari da. Hala ere, oraindik trafiko gehiegi jasaten du oinezkoentzako gunea handitzeko.</li> <li>- Karmelo Labaka-Elkano-Antziola kaleko bidegurutzea eta Latsunbe auzoa-Elkano bidegurutzea: Gune hauek trafiko handia jasaten dute. Azkeneko trafiko aldaketak egin ondoren ez dut egokia ikusten zerbait gehiago egitea.</li> </ul>	<p>(1) Elkano-Nafar kaleko bidegurutzea; (2) Aristizabal-Urbieta kaleko bidegurutzea; (3) Latsunbe kalea-Urbieta kalea eta Marieluts kalea elkartzeko dituen bidegurutzea oinezkoentzako egokitzea: <b>36.575€</b></p>
